

421.ZENBAKIA-AZKOITIKO HERRI ALDIZKARIA -2022KO EKAINA



MAXIXATZEN

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA

JEXUX ARRIZABALAGA 'TATA'

ERRETIROA HARTZEKO BEZPERETAN



erreforma integralak

dica



URRATEGI
INTERIORISMO
bone dabilena

www.urrategiinteriorismo.com

Arragusta 27
20600 Eibar

Arretxe 9
20730 Azpeitia

...erantzuna gara ...ALBERDI gara

 **ALBERDI**
INMOBILIARIA

943 16 98 78

info@alberdi-inmobiliaria.com
Trenbidearen Zumardia, 3 AZKOITIA



3 logela · 1 bainugela · 78m²

AZKOITIA – AMA JOSEFA KALEA

Eraberritutako etxebizitza San Martin Auzoan

Salgai

155.000€



2 logela · 1 bainugela · 60m²

AZKOITIA – XABIER MUNIBE KALEA

Etxebizitza zoragarria Xabier Munibe Kalean

Salgai

190.000€



MAXIXATZEN 421

2022-EKAINA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- 5 **Aurrena** Nerea Uranga, *Dabilen herria.*
- 6 **Hitz tantak** Manuel Olariaga, basozaina.
- 8 **Izpiak eta hizkiak** Javier Beristain, *Bagoaz.*
- 10 **Iritziak** Joseba Epelde, *Belarriko minez;* Yolanda Larrañaga, *Hiru hilabete.*
- 12 **Atzera begira** Kontzejupea, pilotaren habia.
- 19 **Iritzi grafikoa** Gorka Larrañaga.
- 20 **Elkarrizketa** Jesus Arribabalaga, udaleko kultura eta kirol teknikaria.
- 25 **Zakelmari**
- 26 **Erretratua** Ane Plazaola, patinatzailea.
- 30 **Plazan Bazan.**
- 32 **Bestaldetik** Carlos Muñoz, Azkoitiko Udal Musika Bandako zuzendaria eta irakaslea.
- 36 **Erreportajea** *Gurpil gaineko bidaiariak.*
- 40 **Klik!** *Errepidean, argi eta adi.*
- 44 **Iritzia** Maite Lopez, *Ekozidak.*
- 46 **Iritzia** Lander Albizuri, *2084:Spyware.*
- Bertsoa paperean**

MAXIXATZEN

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-85 36 17
maxixatzen@maxixatzen.eus
www.maxixatzen.eus

Erredaktoreburua

Ane Olaizola
Erredaktore taldea
Anartz Izagirre
Andoni Elduaien
Nerea Uranga
Ane Olaizola
Diseinu arduraduna

Iñaki Martínez Albizu

Publizitate arduraduna

Egoitz Azkoitia
Zenbaki honetako kolaboratzaileak
Javier Beristain
Joseba Epelde
Yolanda Larrañaga

Gorka Larrañaga
Saioa Murua
Maite Lopez
Lander Albizuri
Eneritz Artetxe
Arnaitz Rubio Aprea
Administrazio Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:
SS-706/97
ISSN: 1137-8891
Tirada: 1.000 ale

TOKIKOM



Gipuzkoako Foru Aldundia



AZKOITIA
Udala



PUBLIZITATEA

Naike
TATTOO STUDIO

JULIAN ELORZA 5 AZPETA
 972 17 88 51



EGUZKI
 belarrenda
 dietetika
 kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 943-50 34 47 AZKOITIA
 Urbitarte 9 bis 943-15 00 23 AZPETA

Web proiektuak
 Software ingeniariatza

elkarmedia()

info@elkarmedia.eus
 943-85 08 74

etk

Informatika Zerbitzuak
 943-02 63 29
 www.etkinformatika.com

br

arkitekturaestudioa
 santaklara kalea 35 | 943083487
 www.brarkitektura.com

PB
Sport

Iturrondo, 7 • 943-02 56 88
 Kale Nagusia, 87 • 943-85 20 98
 AZKOITIA

ttakun

NAGUSIA 81 • 943-08 30 32
 www.tta-kun.com • azkoitia_ttakun@hotmail.com

Dean

Kale Nagusia, 41 • 943-10 52 82

**ETXEZA
 TABERNA**

Ebozza Etxea, Z/G. • 943-85 20 31

JARRI
 HEMEN
 ZURE
 IRAGARKIA



zur

OGIARTEKIDAK
 SARDINDIAK ETA HAMBURGESAK
 ENTZALADAK
 PIZTOKAK
 GARRAGARDO ETA ARDO ESPANTZA ZABALA
 TERRAZA HANDIA ZUZENBKO EMANALDIAK

KALE NAGUSIA, 68 • 943-85 12 75

LATZ
 TABERNA

ARTISAU PIZAK
 ENTZALADAK
 PIZTOKAK
 PLAZA KONBATUAK
 TAZOKAK
 OGITARTOKAK
 ARDO ESPANTZA ZABALA
 SOBRI ETXERAKI ERPI
 PARRILAKAK

LAPURDUE ETXAN GELU JARRI IRERKITA

KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 19

ALDAKO

SARE ETA INFORMATIKA
 ZERBITZUAK

SAREAK, IRTEERAK ETA
 ORDENAGAILU, MUGIKOR
 ETA TABLET KONPOKETAK

Kale Nagusia, 46 • 20720 Azkoitia
 Tel. 943-08 36 14 • 629 09 92 75
 aldako.informatica@gmail.com

Ibaiondo Berri promozioa
KOKAPEN PRIBILEGIATUA
 www.aranbarri.com



ARANBARRI

Dabilen herria



NEREA URANGA

Herriko kulturari bultzada eman nahian, hainbat herritarren ekimenari esker, Herriko Loreak Eguna egin zuten 2018ko irailaren 15ean Azkoitian. Herrian barrena hamaika ekitaldi egin zituzten egun bakar batean. Bederatzi hilabeteko lanaren fruitua izan zen, antolatzaileek azaldu zuteneguz. Egun harekin herriko elkarteekin eta taldeen lana hauspotu nahi zuten, herritarrek kulturaz goza zezaten eta kulturaren alde egiten jarraitzeko akuilu izan nahian.

Datorren irailaren 15ean lau urte beteko dira ordutik. Tartean, eta Herriko Loreak Egunez bi urte geroago, pandemiaren ondorioz hartutako neurri murriztaileek itzalaldira behartu zituzten kultur taldeak, eragileak, kulturzaleak edota kontsumitzaileak. Bat-bateko estualditik eta itxialditik malgutzen joan ziren neurriak, zabaltzen ateak, luzatzen sokak, bistaratzen irribarreak. Etxeratzekeo iluntzeko ordutegia mugatuta genuen garaian antzokiak jendez betetzen ziren, edukiera mugatuarekin, baina. "Inoiz antzerki emanaldi batera edota zinemara joan gabeko jendea-eta dena joan zen gaueko ordutegiak murriztuta zeuden aldi hartan Baztartzora", gogoratu du Jesus Arrizabalaga udaleko kultur teknikariak argitalpen honetarako elkarrizketarako izandako hizketaldian.

Ordutegiak pandemia aurreko garaira itzuli direnean, jendez hustu egin dira aretoak. "Zinema emanaldietan eta antzerki saioetan pandemia aurreko ikus-entzule kopuruetara iristeko denbora asko beharko da, hilabeteak edo gehiago", uste du Arrizabalagak. Bestalde, gaur eguneko kultur eskaintza "sekula baino oparagoa" dela dio. Horretan kontrarik ezin egin: udaberriaren nola loratu dira ekitaldiak, festak eta ospakizunak. Maiatzeko asteburu bat adibide gisa hartuta, 11 ekitaldi baino gehiago zenbatu dituzte Azkoitian: bertso saioa, lau musika emanaldi, magoa... Ikusi besterik ez dago, puri-purian daude talde asko, eta bi urtetan egin ezin dituzten asmoak eta nahiak martxan jarri dituzte kaleak zabaldu eta arratsaldeak luzatu orduko. Herrian bertan zertaz gozatu izatea ederra da, baita horretarako askotariko aukera izatea ere. Antolatzen dabilen horri aitzakiak jartzeak baino, egin nahi duen hori aurrera eramaten laguntzeak edota parte hartzeak dauka meritua. Euskaltzaleen Topagunearen Kultur Errota egitasmoaren leloak dioen bezala, *Biraka dabilen harria sorkuntzan ari den herria*.

Udaberriaren eta udan kalea, kalekoa, nahiago izaten da, hori pandemiaren aurretik ere hala zen. Orain oraingoarekin disfruta dezagun, baina udazkenarekin batera, eguzki argia apaltzen hastearekin batera aretoetako epelari heldu diezaiozun musikaz, zinemaz, antzerkiak edota dena delakoaz gozatzeko. Etxealdian nahikoa egin gara-eta orain dela gutxi. ■■■

**HERRIAN BERTAN
ZERTAZ GOZATU IZATEA
EDERRA DA, BAITA
ASKOTARIKO AUKERA
IZATEA ERE**

"Basozain lanean asko ikasten da mendian orientatzen"

TESTUA ETA ARGAZKIA: ANE OLAIZOLA

Gipuzkoan dauden ia berrogeita hamar basozainetako bat da Manuel Olariaga *Txomingorri* (Azkoitia, 1956). Duela 35 urte hasi zen zeregin horretan, eta ordutik, Soraluzeko, Elgoibarko, Eibarko eta Mendaroko basoak zaintzen dihardu. Adierazi duenez, "oso lan polita" da berea. Erretiroa hartzeaz orain.

Zein dira zure eguneroko zereginak?

Izadi zaintza da nire ardura. Eibarrek, Soraluzek, Elgoibarrek eta Mendarok osatzen duten zonaldeko basoen gaineko kudeaketa dagokit: zuhaitzen mozketak, horien zainketa, basoa soiltzen denean egiten den landaketa, eta horiei lotutako dirulaguntzak. Suteran bat gertatzen bada edo erreketak egin behar baldin badira, horien gaineko kontrola ere eramaten dut. Beste kide batzuk arduratzen dira ehizaz eta arrantzaz, baina taldelana eta zaintza lana egitea suertatzen zaigunean ere, guk hartzen ditugu ardura horiek.

Asko hitz egiten da basoez. Zuhaitz autoktonoez osatutako basoen aldeko joera handitzen ari al da?

Ahoz aho dabilen gaia da hori. Azken mendean insignis pinua ustiatu dugu, eta ia-ia monokultiboa izatera iritsi da, azkar hazten den zuhaitza delako eta industria indartsua sortu duelako. Ondorioz, bertako zuhaitzei oso leku murrizta geratu zaie. Orain, ordea, pinuak gaixotu egin dira, eta inguru asko oso kaltetuta daude. Bertako zuhaitzez osatutako basoak, berriz, dezente errespetatzen ditugu, eta bide horretan orain aldaketa gehiago egiten direla uste dut. Hainbeste maite ditugun gure zuhaitzek, ordea, urte dezente behar dituzte hazteko; asko kostatzen zaigu horretaz jabetzea.

Arrantzari eta ehizari dagokienez, inspektzioak egin behar izaten al dituzue?

Bai. Garai batean beharra zegoelako ehizatzen zen, eta orain, kirol gisa egiten da; beraz, arautu egin behar da, espezie batzuk zaintzeko. Kaltetuta edo arriskuan dauden animalia eta espezie batzuen jarraipena ere egiten dugu, esaterako okil beltzarena. Garai batean oso gutxi zeuden, eta

orain gehitzen ari dira. Zentzu horretan, oso lan polita da gurea.

Asko aldatu al da zure egitekoa 35 urteotan?

Industria aldatu da, batez ere, azken urteetan pinuaren bueltan ibili baikara. Duela 25 bat urte, ikaragarriko prezioa hartu zuen egurrak, eta izugarriko mugimendua egon zen horren bueltan. Orain, monolaborantzaren eraginez edo, pinuak gaixotu egin dira, eta etekin hori apaldu egin da: garai batean, hektarea bat pinurekin hamar milioi pezeta jaso zitezkeen; orain, berriz, bi milioi pezeta. Bertako zuhaitzak pixka bat gehiago zaintzen ditugu orain. Jendeak jabetu egin behar du beste erremediorik ez dagoela.

Zer da zure lanbidearen gauzarik gogorrena?

Norbaitekin aurrez aurre jarri behar izatea, hark arauak errespetatu ditzan. Batzuetan, gainera, horrek ingurua garrazten du, eta norbaitek, beharbada, azio bat egiten du gero; adibidez, zuhaitzak moztzen ditu ezer esan gabe. Horrez gain, lan administratiboa ere egin behar izaten dugu, eta ondorioz, ordu asko igarotzen ditugu bulegoan. Inori ez zaigu gustatzen hori egitea.

Anekdotarik izango duzu.

Pasarte oso bereziak gertatzen dira, baina gogorak ere bai. Ederrak ere izaten dira, ordea, esaterako, mendian galdutako norbait topatzen duzunean. Noizean behin gertatzen da mendizalaren bat laino itxia tarteko noraezean geratzea. Halakoetan, telefonoz galderak eginez joaten gara pistak ateratzen, eta emandako erreferentzia horiekin aurkitzen dugu mendizalea, asko kostatzen bada ere. Izan ere, basozain lanetan asko ikasten da mendian orientatzen.

Pandemia garaian, herritar askok hartu zuen mendira joateko joera. Antzeman al duzue gorakada?


Bai. Izurrian, jendez beteta egon dira mendiak; esajeratua izan da. Poza ematen du jendea mendian ikusteak, baina bestalde, tristea da horien joan-etorrien ondorena. Izan ere, oso erraz uzten dugu zakarra mendian. Noiznahi ikusten dituzu plastikozko botilak, aluminio paperak... Amorrua ematen du horiek ikusteak. ■■■



Bagoaz

ARGAZKIA ETA TESTUA: JAVIER BERISTAIN

Batzuk azkarrago, besteak polikiago.
Batzuk urrutira, besteak hurbilagora.
Batzuk bide zabaletatik, besteak estuagotatik.
Batzuk eguraldi onarekin, besteak txarragoarekin.
Batzuk bakarrik, besteak lagunekin.
Batzuk umoretsu, besteak haserreago.
Batzuk ekipaje handiarekin, besteak txikiagoarekin.
Batzuk..., besteak...
Bagoaz... Denok goaz. ■■■







Belarriko minez

Ez dago nire belarriko mina sendatuko duen otorrorrik. Subjektiboa, psikologikoa edo linguistikoa baita gehiago, kanpo –edo barne– eragile fisiko batek sortutakoa baino. Urte asko dira Juan Luis Zabalak *Ere-ren ondoeza* artikulua idatzi zuela *Euskaldunon Egunkarian*, adberbio horren erabilerari euskaldunok ematen dizkiogun "tratu txarrak" agerian jartzeko eta salatzen, eta artikulua haren sustraian zegoen gaitzaren antzekoa da nirea ere, jendearen eta komunikabideen jardunak eragindakoa gehienbat.

Eta juntagailua da belarriari ditudan oinazeen lehen sorburua. Antza, jendea goseak ateratzen da etxetik, eta juntagailuak jateari ekiten dio tripetako orroak isilarazteko.

Barra-barra entzuten dira komunikabideetan "mila bostehun pertsona elkartu dira" edo "hogei mila hirurehun realzale izan ziren Anoetan" eta antzekoak. Mokadu batean irensten dute-eta gajoa (ala gizajoa da?). Ondoren, partidaren lehen zatia "bi bat" amaitu dela esango dizute, edo azken emaitza "hiru bi" izan dela. Eta nire belarriak, sentikor samarra izaki, sufritu egiten du ezinbestean, Realak irabazteagatik gustura egonda ere.

Bada azken urteetan COVID-19a baino azkarrago zabaldu den beste izurri bat ere. Gazteen artean erabiltzen dela esan behar nuen, baina hain gazteak ez direnei ere entzun izan diet (gazteago sentitzeko, akaso?) pelikula bat "kriston

ona" dela edota ez dakit zer egiten "kriston ondo" pasatu dutela. Orrazteko adina ile nuenean, ez nekien teorizatzen *kristoren* hitza ez dela adjektiboekin eta adberbioekin erabili behar, baina hainbestetan entzun nuen Jotakie taldearen *Kriston burrundaie* (kaskoek belarriko min fisikoa egin arte, beharbada), nire senak-edo esaten zidan ezin nuela ume bat "kriston polite" dela bota zerbait arraroa egiten ari nintzela sentitu gabe.

Ez da horiekin amaitzen nire belarrien sufrikarioa, telebistan edo irratian ohiko samarra baita *dagoeneko* erabili behar den lekuan *honezker*o esatea, edota beti, salbuespenik gabe, bietako bat erabiltzen duenik aurkitzea. Eta sofistikatua ere

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



YOLANDA LARRAÑAGA

badaude: adibidez, telebistako albistegia amaitzen zenean "eskerrik asko hor egon izanagatik" esaten zuen esatariarena, "eskerrik asko hor egoteagatik (edo zuen arretagatik)" esan beharrean. Esanahi kausala eman nahi denean perpaus kontzesiboa erabiltzeko joera horrek *follower* ugari lortu bide zituen, gaur egun etengabe erabiltzen baita hala ikus-entzunezko komunikabideetan, nola idatzizko euskarrietan.

Gezurra badirudi ere, testu marmarti honen asmoa ez da inori ezer aurpegiatzea, pentsatzen hasita bainago nire belarriko mina ni eta ni bezalako atzerakoion arazoa baino ez dela. Kaiolatuta, fosilizatuta edo disekatuta eduki nahi dugu euskara, "gure

garaian" edo "beti" izan den bezalakoa mantentzeko (zein arriskutsua eta zenbat arazoren iturri den "beti" hori!), baina hizkuntzek beren bidea egiten dute, apurtu beharreko arauak apurtuz eta gu bezalako inkisidore neurotikoak eskandalizatuz, hala behar denean.

Auskalo! Akaso hemendik ehun urtera Euskaltzaindiak arkaismotzat hartuko ditu gaur eztabaidaiezintzat ditugun txikieria horiek, eta hala bada, ba ez da ezer gertatuko. Malgutasunik ezaren edo moldakaiztasunaren ondorioa izango da, azken batean, nire belarriko mina, eta lasaitzen nauen terapeuta baten kontsultara joan beharko dut neure onera etortzeko, nire eta *ere*-ren ondoezek ez baitute erremediorik, itxura. ■■■

Hiru hilabete

Bizitza alai eta ondo doakigunean, hiru hilabete ez dira ezer. Konturatu gabe pasatzen dira. Sufritzen gaudenean, aldiz, hiru hilabete luze egiten dira, egun bakoitza jasanezina baita.

Hiru hilabete dira Errusiak Ukraina indarrez hartu zuenetik. Hiru hilabete milaka pertsonak beren etxeak eta maite duten lurra atzean utzi zituztenetik, inoiz berriro itzuliko al diren edo bertan utzi dutena berreskuratuko al duten jakin gabe. Beste milaka beldurrez etxe azpialdean ezkutatuta daude, gehien maite dituzten seme-alabatxoak besoetan hartu eta maitasuna besterik ez dutenean emateko.

Zeharo hunkigarria da zenbat sufritzen ari diren pentsatze hutsa, gehienek duten erru bakarra Ukrainian jaiotzea izanik. Gizon gaizto baten maltzurkeriak hautsi ditu hainbat familia, haietako askok ez dute inoiz gehiago irribarre goxorik izango ezpainetan. Haurtxo txiki horien begirada tristeak estutzen dit bihotza.

Gizon baten maltzurkeriak moztu ditu hainbeste amets zituzten pertsonen hegadak. Haurtxoei ama edo aita kendu diete ondotik, amei haurrak kendu dizkiete besoetatik.

Hiru hilabete asko dira sufritzen daudenentzat. Nire bizitzako hiru hilabete eskainiko nizkioke bakardadean sufritzen dagoen orori. ■■■





Kontzejupea, pilotaren habia

Historia, pilota partida, trabes eta bizipen ugari jaso dituen frontoia da Kontzejupea. Azkoitiaren, eta nola ez, euskal pilotaren bihotza izan da urte askoan. Oraindik orain, izate hura ez du galdu herriko pilotaleku bihurrienak, eta Pelotai Euneren bitartez zein haren bueltan urtero antolatzen dituzten txapelketek esentzia hura aldarrikatzen jarraitzen dute.

Testua: **Andoni Elduaien**. Argazkiak: **Andoni Elduaien eta utzitakoak**.

Esku pilota tradizio handiko kirola izan da eta da egun Azkoitian. Jesus Maria Beristain idazleak Azkoitia pilotarien "soro emankorra" zela adierazi zuen liburu batean. "Pilotaren sehaska" izenez ere batek baino gehiagok ezagutuko du herria, eta Kontzejupea "pilotaren unibertsitatea" izan zela ere badiote aditu askok. Gaur egun, tarteka libre egoten bada ere, duela ez hamarkada asko, eguna argitu aurretik okupatzen zuten frontoia, eta ez zen libratzen ilargia iluna argitzen hasi arte.

Kaleko eskola haren lekuko izan ziren Carlos Arrizabalaga *Xapatero* (Azkoitia, 1937) eta Jesus Larrañaga *Txanton* (Azkoitia, 1938). Haurrak ziren sasoian, pilota usatzera joaten zen bikotea, herriko ia mutil guztiak bezala. Azkoitian pilota egile bat baino gehiago zeuden orduan, eta haiek bigundu gabeko pilotak ematen zizkieten herriko umei. Pilota Kontzejupeko hormen aurka kolpatuz bigundu ondoren, pilota egileen eskutik dirua jasotzen zuten bueltan haurrek. Urte bat baino gehiagotan aritu ziren zeregin horretan Xapatero eta Txanton. Bikoteak adierazi du pilotak Kontzejupean usatu behar izaten zirela nahitaez, plazako frontoiak beste pilotalekuen aldean "zoru gozoa" baitzuen. "Azkoitian bi pilota egile zeuden orduan, eta kurioz zena, baina batek besteak baino gehiago ordaintzen zuten pilotak usatzeagatik. 11-12 urte genituela, goizaldeko 05:30-06:00 aldean joaten ginen Kontzejupeko txokoa hartzera. Txoko sakratu hura hartuz gero, egun guztirako norberarena izaten zen, eta bi edo hiru pilota usatzeko aukera izaten genuen horrela. Astean bi edo hiru aldiz joaten nintzen ni, eta bi edo hiru duro irabazten nituen, kasik gure aitak lanean baino gehiago. Sarritan lekurik ez genuen izaten, eta ondorioz, pilota Kontzejupeko arkupeetako hormen aurka joaz usatu behar izaten genuen", nabarmendu du Txantonek.

"Tranpatxoak" ere egiten zituzten, ordea, pilota usatzaileek, pilota azkarrago biguntzeko trikimailu bat aurkitu baitzuten frontoitik ez oso urrun. "Udaletxeko atearen atzeko kakoarekin pilota bigundu egiten genuen, baina pilota egileek segituan igartzen zuten", dio Txantonek. Xapateroren arabera, Berdura plazan pilota zanpatzeko beste ate bat ere bazen. Hark segituan ekarri du gogora pilota usatzen zuten mutiko baten istorioa. "Mutiko bati galdu egin zitzaion usatu behar zuen pilota. Oker ez banago, pilota hark 60 pezeta balio zituen, eta gazteak hura ordaintzeko dirurik ez zuenez, hamabi pilota usatu behar izan zituen debalde. Herriko kale garbitzaileak Kontzejupeko txokoa dagoen atean gordetzen zituen astoa eta gurdia, eta antza, hango otarre batera erori zen pilota. Urte batzuk geroago aurkitu zuten pilota, baina ordurako guztiz hondatuta zegoen". Bi lagunak baino gazteago ziren mutilek ere jardun zuten pilota usatzen. Ez denbora askoan, ordea; izan ere, Xapaterok dio makinaren bat

Hainbat nerabe Kontzejupean pilotan.



asmatu zutela pilotak azkarrago biguntzeko. Horrela galdu zen pilota usatzaile lana Azkoitian.

Kontzejupean, denetarik

Frontoi txikia eta bihurria izateagatik da berezia Kontzejupea. Pilotaleku horren kontuak aipatu bezain laster, frontoiko "gurutze barrua" –udaletxerako sarreratik frontiserako eskuineko zatia, eskuin horma aldekoa– aipatu du Xapaterok: "Abilezia handiena zuten pilotariak aritzen ziren txoko hartan. Ezkerrez jota zein eskuinez efektuarekin jota, pilota lehen ate zulora sartzea izaten zen guztien helburua. Kontzejupeko partidarik ezagunenak gurutze barruan jokaturakoak dira". Kontzejupean lau koadroren barruan ere aritzen ziren –udaletxerako sarreratik frontiserara bitarteko zati guztia–, eta nola ez, baita frontoi osoan ere.

Historian zehar, erronka eta desafio ugari jokatu dira Kontzejupean, eta Xapaterok trabeserako erabiltzen zen aspaldiko pilota bat erakutsi du orduan: *libra erdiko pilota*, hots, 250 gramoko pilotatzarra. Desafioak, baina, era askotara jokatzen zituzten: "Eskua bizkar aldera lotuta edo oinak edo eskuak bikoteari lotuta jokatzen zituzten partidak, baita abarketa sorta bizkarrean kargatuta nahiz zakuetan sartuta ere", dio Xapaterok. Kontzejupean, ordea, beste era askotako partidak ere izaten zirela adierazi dute bi lagunek. "Lehia batzuetan, pilotari batek normal jokatu behar izaten zuen pilotan, eta beste pilotariak eskuan hartu ondoren bota egin behar izaten zuen pilota". Txanton, bere aldetik, arau berezia zuen beste jokamolde batekin oroitu da: "Pilotak frontisa jo ondoren sabaia jo behar izaten zuen nahitaez; osterantzean, tantoa aurkariarentzat izaten zen".

Egungo pilota askorekin pentsaezina da pilotan esku hutsik jokatzea, baina hala aritzen ziren lehen denak, eskuak guztiz hazi edo odoldu arte. Hatzaparrak ahalik eta azkarren berreskuratu behar izaten zituzten pilotan egiteko. "Bizarra mozteko xaflarekin ireki edo zulatzen genituen hazitako behatzak, eta ondoren, norbere pisa



botatzen genuen behaztara. Eskuatarako erremedio ona zen. Lagun batek bere oinarekin eskuak zapaltzea zen beste erremedioa", dio Txantonek.

Frontoian ere, maisuak

Kontzejupeko hormetatik ezker hormarako bidea hartu zuten gerora gazte asko eta askok. 1972ko irailaren 24an eskuratu zuen Azkoitiak Gipuzkoako Herriarteko Txapelketako lehen txapela. Donostian jokatu zuten final hura Bergararen aurka, eta infantil, jubenil eta nagusien mailan garaile izan zen Azkoitia. Xapatero Herriarteko txapelketetako sari ugari jasotakoa da, Beti Poz pilotazale elkarterko kidea baitzen hura orduan. Elkarre gastronomiko bat martxan jarri ahal izateko, ekintzailetasuna eskatzen zitzaien soziedadeei, eta haiena izan zen herriko pilota elkarteetan lehena. 1972az geroztik, beste hamabost aldiz jantzi du Azkoitiak Gipuzkoako Herriarteko Txapelketako txapela eskuzko modalitatean.

Herrien arteko lehia ez ezik, Azkoitiko auzoen arteko lehia ere antolatu zuten, ordea. Xapaterok gogoan duenez. 1970-71 denboraldian hasi ziren txapelketa antolatzen, eta bost bat urtean jokatu zuten hura. "Martirietak, Elosuak, Urrategik, Kukuherrik eta Madariagak parte hartu zuten auzoen arteko lehian. Txapelketak kanporaketa sistema zuen, joaneko eta itzulerako partidekin, eta auzo bakoitzeko frontoira joaten ginen partidak jokatzera. Finala, berriz, udal pilotalekuan jokatzeko zen. Auzotik auzora alde handia zegoen pilotalekuei zegokienez, eta horregatik, kanporaketa guztiak udal pilotalekuan jokatzeko hasi ginen gero". Gipuzkoan oraindik orain gehiago egin ez den eguna ere antolatu zuten Azkoitian, eta antolaketa lanetan aritu ziren bi lagunak: 24 orduz jarraian pilotan jokatzeko aritu ziren. "Beti Poz pilota elkartearen 25. urteurrena ospatzeko antolatu genuen eguna. Gelditu ere egin gabe jokatu zituzten partidak frontoian: mutil koskorren partidak, gizon-emakumeen partidak, erremintadun partidak... Modalitate

**"KONTZEUPEKO
PARTIDARIK
EZAGUNENAK
GURUTZE BARRUAN
JOKATU IZAN DIRA"**

**"11-12 URTEREKIN,
05:30-06:00 ALDEAN
JOATEN GINEN
KONTZEUPEKO
TXOKOA HARTZERA"**



Ezkerrean, Xapatero eta Txanton, Kontzejupean; erdian, 1966. urteko pilota partida bat; eskuinean, Manolo Larrañaga, pilota eskuan duela.



guztietako neurketak izan ziren. Gogoan dut, profesionalen punta-puntako partidak jarri genituela azken bi orduetarako".

Profesionalik zaharrena, Larrañaga

Manolo Larrañaga (Azkoitia, 1927) da profesional mailan jokatu zuen Azkoitiko egungo pilotaririk zaharrena. 19-20 urterekin egin zuen debuta, modu "zeharo bitxian", haren hitzetan. "Urte Berri egunean egin nuen debuta. Nire aita pontekoaren urtebetetze eguna zen, eta eguna ospatzeko bazkaria egin genuen. Bazkalondoren, Eibarrera [Gipuzkoa] joan ginen Atano III.a ikustera. Min hartu zuen eguneko bigarren partida jokatu behar zuen pilotari batek, eta hirugarren partidaren buruz buru aritu behar zuen beste pilotari batek ordezkatu zuen hura. Hirugarren partidarako, baina, pilotari bat falta zuten", dio Larrañagak. Orduan, arduradunek azkoitiarrari egin zioten proposamena. "Pilotan aritzeko arroparik ez nuela erantzun nien. Segituan etorri zen nigana Atano III.a, eta hark jokatu behar zuen partida amaitutakoan bere arropak utziko zizkidala esan zidan. Hala egin nuen debuta, Atano III.aren arropekin". Mendietaren aurka aritu behar izan zuen azkoitiarrak buruz buruz, eta 18 eta 8 galdu zuen. "Sekulako bazkaria eginda, eta gainera, entrenatu gabe nengo; hauspoa bete egin zitzaidan".

Larrañaga federatuta zegoen ordurako, eta afizionatu mailan jokatzeko atzelari postuan. "Eibarren jokatu nituen partida gehienak, baina baita Gasteizen eta Logroñan [Espainia] ere. Logroñora gustura joaten ginen, Gipuzkoatik irtenda diru kopuru bikoitza jasotzen baikenuen". Bigarren edo hirugarren partidak jokatzeko zituen Larrañagak batez ere, baina gogoan du Zarautzen (Gipuzkoa) partida nagusi bat ere jokatu zuela. "Udan, Eibarko pilota enpresak Zarautzen antolatzen zituen partidak, eta han Zurdo de Mondragonekin jokatu nuen. Kasik bakarrik irabazi zien hark aurkariei". Profesionaletako ibilbidea, baina, ez du oroitzapen onekin gordeta. "Ez nuen batere gozatu. Esku ahulak nituen, eta minez ez banegoen, minduko ote zitzaizkidan



ikaratuta egoten nintzen; frontoira irteteko ere beldurra izaten nuen. Modu horretan ez dago gozatzerik", nabarmendu du azkoitiarrak. Gainera, Larrañagak dio garai hartan ez zirela ondo prestatzen pilotariak. "Ez genuen izaten prestatzailerik, eta mendian ibiltzea ona zela esaten zutenez, han ibiltzen ginen gora eta behera. Behin, ordea, Olimpien eman zuen hitzaldi batean, honako hau esan zuen batek: 'Mendian ibiltzea bizitza osasuntsuaren seinale da, baina pilotariak frontoian entrenatu behar du, futbolariak futbol zelaian entrenatzen duten moduan'. Ez zitzaion arrazoirik falta".

Kontzejupean asko aritutakoa da Larrañaga. Gogoan du han binakako trabesa egin zuten egunean gertatutakoa. "Inazio Urzelaik eta Tomas Lersundik Sebastian Larrañaga eta bion aurka jokatu zuten. Haizeak nahikoa gogor jo zuen egun hartan, eta plazako iturritik ura sartu zen Kontzejupera, lurra pixka bat bustiz". Larrañagak atzera luze jo zuen pilotakada batean gertatu zen ondorengoa: "Lersundik irrist egin zuen, oin hutsik ari baitzen jokatzeko. Kolpe txarren bat hartu zuen, eta konortea galdu. Kontzejupean zerbait gertatzen zen aldiro plazako farmaziara joaten ginen, eta han itzuli zen bere onera. Kontzejupera etorri zenean hala esan zuen: 'Nork jo nau ni?'. Ez zen ezertaz gogoratzen". Udaletxe azpiko frontoian bezala, Goiko Losan ere asko aritu zen Larrañaga. "Umetan ez zen Kontzejupean pilotan asko jokatzetik egoten. Jokatzeko ari bazinen ere, adinez zaharragoak etortzen zirenean alde egin behar izaten zen. Goiko Losara joaten ginen orduan, eta han ezker horma zati askotan banatzen genuen. Frontoiko azken koadroei 'beltza' deitzen genien; beste zati batean haurrek jokatzeko zuten; haren aurreko koadroetan beste zati zabalago bat zegoen; eta frontisa ere erabiltzen genuen".

Larrañaga bezala, Kontzejupean hazi eta hezitako herritar ugari iritsi dira pilotaren gailurrera. Kontzejupe izenez ezagutzen den herriko frontoi bihurria "pilotaren sehaska", "unibertsitatea" edo "soro emankorra" den seinale. ■

**MANOLO LARRAÑAGAK
ATANO III.AREN
ARROPEKIN EIBARREN
EGIN ZUEN DEBUTA
PROFESIONAL MAILAN**

**"HAURREK EZ ZUTEN
KONTZEUPEAN ASKO
JOKATZEN;
ZAHARRAGOEK BIDALI
EGITEN ZITUZTEN"**

IZAN KA IRAKUR ZALE!



**EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO
DESKONTUA IZANGO DUZU**
bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41


MAXIXATZEN

LAGUNTZAILEA



Elkarrekin, Berriztatzen





"Gure lekua bigarren planoan da"

JESUS ARRIZABALAGA 'TATA' UDALEKO KULTURA ETA KIROL TEKNIKARIA

Hilabete batzuk barru erretiroa hartzea aurreikusita du Arrizabalagak, garaia iritsi zaiolako. 1984tik da Azkoitiko Udaleko kirol, kultur eta festetako teknikaria. Lanari aitzakiarik ez dio topatzen, gustura aritu eta aritzen delako dagokion jardunean.

Testua: **Nerea Uranga**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Ia 40 daramatza Azkoitiko Udaleko kultura, kirol eta festetako teknikari lanetan Jesus Arrizabalaga *Tatak* (Azkoitia, 1957). Udalaren departamentu horretako lehen teknikaria da. Gertu du erretiroa. Abuztuaren bukaeran beteko ditu 65 urte, baina irailaren amaiera artean udaletxean lanean jarduteko asmoa du: "Andramarietako kontuak itxita utziko ditut". Gustuko lana egiten duela aitortu du, eta gustura joaten dela lanera: "Baina erretiroa hartzeko garaia iritsi zaigu, eta beste batzuei tokia egin beharko diegu".

Noiz hasi zinen udalean teknikari lanetan?

1984ko urtarrilean hasi nintzen. Aurrez, Eusko Jaurlaritzako animazio soziokulturalari lotutako proiektu batean bi urte pasatu genituen 11 lagunek Gasteizen, barneko ikasle moduan. Europako hainbat tokitan kultur teknikariak bazirela eta, proba pilotu gisa antolatu zuten ikastaroa. Proiektu hartako partaideok Gipuzkoako eta Bizkaiko hainbat udaletxetan egon ginen urtebetez probaldian, soldata Jaurlaritzak ordainduta. Behin urtea pasatu zenean, Azkoitiko Udalak postua sortzea erabaki eta lehiaketara atera zuen. Ez zegoen jende asko lanpostu hartarako, eta hala hasi nintzen ni. Orduan, ia teknikaririk ez zegoen Azkoitiko udaletxean; bulego teknikoan zegoen bat eta Ongizatean hasita zeuden gizarte laguntzaileak.

Kulturako, kiroleko eta festetako teknikaria zara.

Mundu edota sail horretan ez zegoen inor, eta hasi nintzenean, horiek denetan aritzea egokitu

zitzaidan. Ondoren, kiroldegia eraiki zuten, eta hango ardura ere hartu egin behar izan nuen. Zumarragan [Gipuzkoa], Irunen [Gipuzkoa]... ibili nintzen kiroldegia ikusten, eta Bartzelonan ikastaro bat egin nuen. 1988an inauguratu zuten kiroldegia, eta, handitu zuten arte, 21 urtez izan nintzen hango zuzendaria.

Zure egitekoak nolako ibilbidea izan du?


Aldaketa handiak izan dira, batik bat administrazioa hazten joan delako; esaterako, egun denbora asko pasatzen dugu paper artean. Lehen gehiago zen ekintzak egitea, eta orain, berriz, izapide asko egin beharra dago. Horrez gainera, elkarteak asko gehitu dira herrian, eta askoz ekintza eta programazio gehiago egiten dira. Pentsa, gure departamentuan lehen ni bakarrik aritzen nintzen lanean, eta orain beste hiru laguntzaile ere badaude.

Herrian aurpegiz ezaguna den udal teknikaria zara, ekitaldi askotan egoten zarelako edota bertatik bertara jarraitu izan dituzulako.

Elkarteei edota herritarrei esku artean dituzten asmoetan laguntzea izan behar du gure lanak, baita ekintzen egunean bertan ere, zerbait behar badute norbait deitzeko eta abar. Haien babesa behar izanda ere, laguntzeko gertu izatea gustatzen zait. Egun, jardun hori pixka bat galtzen ari da, ordea.

Dagoeneko herriko hainbat ekitaldi begiak itxita ere antolatuko zenituzke, ezta?

Bai, gauza asko eta asko antolatuko nituzke, baina hori urteetako esperientziak ematen du. Adibide bat



ematearren: sanandresetan ikastetxeek postuak muntatzen dituzte Azoka Plazako arkupeetan, eta plazako lokal batean denda ireki behar zutela eta Udaltzaingoa Torrezurira pasatuko zutela jakin nuenean, sanandresetako postuak nola antolatu behar nituen begiratzera joan nintzen segituan. Postu denak sartzeko tokia zegoela ziurtatu nuenean lasaitu nintzen. Hori sanandresak baino ia urtebete lehenago egin nuen. Perspektiba hori esperientziak ematen du. Kaleren batean obrak edota beste zerbait dagoela jakindakoa, berehala zertan eragin diezaguken pentsatzen hasten naiz, eta eragingo baligu, nola konpondu pentsatzen. Urteetan lanbide berean aritzeak erraztu egiten ditu lanak: badakizu noiz hasi behar duzun batean eta bestean baimenak eskatzen, izapideak egiten...

Azkenaldian, hainbat eragilek izan zaituzte gogoan.

Esaterako, Azkoitia-Azpeitia Maratoi Erdiko antolatzaileek oroigarria eman zizuten.

Horrek sorpresan harrapatu ninduen. Horrelakoak ez zaizkit gehiegi gustatzen, nik nire lana egiten dut, eta gustukoa dut lana, baina atzeko lana. Protagonismoa elkarteek eta antolatzen dutenek izan behar dute. Gure lana, berriz, horiei laguntzea da, baina atzetik. Hamaika aurkezpen eta ekitaldi antolatu izan ditu udalak, baina horietan argazkietarako-eta aurrean egon behar duena ez da kultur edota kirol teknikaria, toki hori zinegotziari dagokio. Gure lekua bigarren planoan da, gu lanerako eta laguntzeko gaudelako.

Tata danborrada elkarteak sortu dute.

Taldeari izen hori nik ezer jakiteke jarri zioten. Aurretik, elkartearantzako beste izen batzuk proposatu nizkien nik, eta gero jakin nuen Tata jarri ziotela. Lehen Azkoitiko helduen danborrada Andramari bezperan egiten zen; hemezortzi danbor-jotzaile, 33 upel-jotzaile, paelleroak eta karroza ateratzen ziren, ez besterik. Azken urteetan sanandresetan egiten da danborrada, eta bolumen handia hartu du egitasmoak. Danborradaren bileretan askotan aipatu izan dut: helduen Azkoitiko danborradak ez luke aurrera jarraituko neskengatik izan ez balitz. Urte batean, danborradan jende gutxik irteten zuelako eta ekitaldia galtzear zegoelako, bilera ireki bat deitu zen Kultur Etxean. Neska kuadrilla handi bat etorri zen batzarrera, parte hartzeko aukerarik ba al zuten galdezka. Baiezkoa eman zitzairen, noski; eskerrak etorri ziren, bestela ez dakit danborradarik egingo zen. Haiek taldea osatu eta irten egin zuten. Ondoren, danborrada sanandresetara pasatzea erabaki zen; zehazki, danborradak 50 urte egin zituenean irten

zen helduena azkenengoz andramarietan. Gaur egun danborradak duen partaide kopurua ikusita, beharrezkoa zen talde bat osatzea, baita umeena aurrera eramateko ere. Dena den, oraindik udalari egokitzen zaio danborradako lana egitea, beste leku askotan ez bezala, Azkoitian bi danborradetako material guztia udalarena delako.

Lanik gustukoena zein izan duzu?

Bat ala bestea, berdin-berdin ditut gustuko, izan kirola, izan kultura, izan festak... Azkenengo urteetan, zahartu naizen horrekin, agian, musika klasikoa gehiago gustatzen zait, eta Udaberriko Musikaldia eta Organo Erromantikoaren Zikloa gustura antolatzen ditut. Baina bestelako ekitaldiek ere ez dute aitzakiarik, orain gutxi musika elektronikoaren jaia antolatu du talde batek, eta modu berean saiatu naiz haiei laguntzen. Kirol kontuetan ere gustura ibili naiz beti. Kuadrillakoak-eta urte pila batean ibili izan ziren atletismo taldean, Xeyen aurretik zen Iraurgi atletismo taldean. Ni Iraurgiko lehendakaria izan nintzen urte askoan, eta entrenatzaile lana, berriz, Julianek [Olano] egiten zuen. Gauza askotan ibili naiz, baina erraz, gustura. Oraindik ere hala segitzen diot, e!

Herritar guztiak kontuan hartuta ekintzak antolatzen asmatzea erraza izaten al da?

Gauzak eta egitasmoak aurrera ateratzeko, antolatzeko, kezka edota ekimena duen jendeari lagundu egin behar dio administrazioak nire ustez; musika elektronikoaren jaia dela, Floreagako festak direla, lasterketa bat, xakeko txapelketak, Pelotai Eune... Gu jendeak egitea nahi duen gauza horiek bultzatzeko gaude. Gero, arloren batean hutsunea ikusten badugu, hor sartu behar dugu udaletxekook. Garbi esanda, gaur egun ezinezkoa izango litzateke enpresa pribatu batek zinema programazioa eskaintzea, antzerki programazioa ekartzea edota jaialdiak egitea. Ekitaldi horien zabalkundean udalak edota Foru Aldundiak esku hartu beharra daukate. Gabezia horiek estaltzeko eskaintza administrazioak egin behar du. Baina zenbait festa, ekitaldi, proba... antolatzeko ekimena duen jendea badago, eta udalaren egitekoa haiei beren asmoa aurrera ateratzen laguntzea da. Kirol elkarte ugari dira baliabide gutxirekin eta boluntario lan ugari eginez ekintzak egiten dituztenak, eta haiek aurrera egin dezaten batean eta bestean gauzak antolatzen eta dirua biltzeko ahalegin handia egiten ibiltzen dira.

Lanaren zer arlo egin zaitu gogorrena?



**"ELKARTEAK ASKO GEHITU DIRA,
ETA EKINTZA ETA PROGRAMAZIO
GEHIAGO EGITEN DIRA"**

**"NIK NIRE LANA EGITEN DUT,
ETA GUSTUKOA DUT LANA,
BAINA ATZEKO LANA"**

**"URTEETAN LANBIDE BEREAN
ARITZEAK ERRAZTU
EGITEN DITU LANAK"**

Lana oso gustura egin dut. Batzuk esan ohi dute: "Hau jubilatzeke gogo". Nik, ordea, ez daukat bereziki gogo hori, lanerako arazorik ez daukat. Baina urteak ailegatu dira, eta ospa! Ia 40 urte egin ditut lanean, eta etor daitezela beste batzuk beste ikuspegi edota ideia batzuekin. Iritsi da garaia, etapa bat beteko dut. Abuztuaren bukaeran beteko ditut 65 urte. Egiteko geldituko diren kontuak egiten ariko naiz irailean: andramarietako fakturak lotu, espedienteak itxi... Nire asmoa irailaren bukaeran jubilatzea da.

Berez, aurtengo andramariak izango dituzu azkenak lanean.

Bai, andramarietan oraindik udaletxean egongo naiz. Gero, osasunak laguntzen badu behintzat, dakidan gauzetan laguntzera joateko asmoa daukat. Izan ere, izaten dira boluntarioak behar izaten diren ekintza batzuk, eta nik urte askoan jardun dut horietarako jende bila. Ez daukat asmorik ospa egin eta denarekin ahazteko.

Lanean militantzia puntu hori baduzu, ezta?

Bai, handia. Azkenean, urteotako ibilbidean sortu diren talde guztiekin izan dut harremana, eta haiena ere militantzia da, boluntario aritzen dira-eta ordu askoan. Nik ez dut lan egin ordutegiari begira, ez dut era horretan funtzionatu. Bulegoko lanaz gain, bestelako hainbat lan egitea ere egokitu zait, baita erratza pasatzea ere. Denetarik egin izan dut beti. Izan ere, igande arratsalde batean ekitaldi bat antolatu plazan eta han aulkiak jartzeko eta kentzeko ez diet deitzen brigadakoei. Neuk plazan egon behar badut eta lan hori egiteko gai banaiz, egin egiten dut, askotan departamentuko beste batek lagunduta, eta kitto. Geuk han egon beharra baldin badaukagu, zertarako lana eginarazi beste langile bati igande arratsalde batean?

Zure lekukoa nork hartuko duen kezkatzen al zaitu?

Bai, ematen dit kezka, baina pentsatuta departamentuak beste estrukturazio bat behar duela. Gipuzkoako udal teknikarion bileretan ikusitakoagatik dakit, 5.000 biztanletik gora dituzten beste inongo udaletan ez dagoela kirola eta kultura batera eramaten dituen teknikaririk. Gure departamentuan kirola, kultura eta festak sartzten dira, baita turismoa ere, eta merkataritzako eta hezkuntzako zenbait kontu ere bai. Udaleko departamentu moldagarriena gurea da, beste hirurak nahiko tinkoak direlako. Baina beti "bai" esaten dugunez, gugana etortzen dira egitekoak, eta gu horiek ahalik eta ondoena eta txukunena egiten ahalegintzen gara. ■■■



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

Erronka berriei
aurre egiteko,
aldatu beharra dago.

Iritsi da **TicketBAI.**

Enpresek aurrera egiten dutenean,
Gipuzkoak aurrera egiten du.



TicketBAI
GIPUZKOAN

gipuzkoa.eus/ticketbai



**JARRI HEMEN ZURE
IRAGARKIA**

ZERBER BURDINDEGIA

BEHAR DUZUNERAKO ALDUR GUZTETAKO GAIAK AURKITUKO
DITUZU GURE BURDINGIAN: INDUSTRIA, ELEKTRIZITATEA,
MARGOLARITZA, ETXEA, ITURGINTZA, BIKOLAJEA
ETA ABARREKO TREKNERIA; HALA NOLA, TORLOJULAK,
ERROKAMENDUAK, SARRAILAK, GELTZAK, ETA ABAR...

**ZERBERREN
"ZER BER ETA HURAXE"**

NAGUSIA: 39 - 20720 AZKOITA - 938 36 91 26
www.ferreteriazerber.com






**ASKE MAITE bertako
ASKE BIZI!** igogailuek | ascensores

www.bertoko.eus **GIPUZKOA 943 903 450**

NON DAGO ZAKELMARI?



Maiatzeko Maxizatzen aldizkarian **Zakelmari** non ezkatututa zegoen asmatu behar zen: 23. orrialdean zegoen ezkatututa. Maxizatzeneko bazkide guztien artean zozketa egin ondoren, **Ane Izagirre** bazkideari egokitu zaio Herrixen merkataritza elkarteak emandako **50 euroko erosketa bonoa**. Datorren hilean, Ogi Berri okindegiaren zortzi laguntzako tarta zozkatuko du Maxizatzenek Zakelmari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna ekainaren 17a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo erredakzioa@maxizatzen.eus helbide elektronikora.



*Komertzio
txiki
herrixen
esentziaz*



"Klaseekin bultzatu behar da patinekiko zaletasuna"

ANE PLAZAOLA PATINATZAILEA

Behin nerabezaroa pasatuta sortu zitzaion Ane Plazolari patinaketarako interesa. Herrian antolatutako ikastaro batean parte hartzeak eragin zuen bere zaletasunaren sorrera, eta orduztik, dozenaka txapelketetan lehiatu da azkoitiarra; podiumera ere behin baino gehiagotan igo da, gainera.

Testua: **Anartz Izagirre**. Marrazkia: **Gorka Larrañaga**.

Dena kasualitatez hasi zen", dio Ane Plazaola (Azkoitia, 1984) patinatzaileak. Halaxe laburbildu du egun bere afizio garrantzitsuenetariko bat denaren hastapena. Azkoitiko Udalak 2010ean antolatu zuen patinaketa ikastaro batean izena eman zuen lagunekin batera, oraindik ere kirol horretaz deus ez zekienean: "Ostiraletan izaten ziren klaseak, eta han ezagututako jendea larunbatetarako gelditzen hasi ginen, patinetan ibiltzeko eta". Azkoitiarrak gogoan du horren aurretik, 2009an, kuadrillakoekin Frantziako Landetara joan zenekoa: "'Patinak eraman behar dira' esan zuten kuadrillakoek, eta nik orduan ez nuen halakorik. Lagun baten bikotekideak utzitakoekin ibili nintzen; neu izango nintzen orduan traketsena". Plazaolak ez zuen patinekiko zuen interesa alde batera utzi, eta Donostioller taldera jo zuen: "Azkenean, batean eta bestean, patinaketa munduan murgiltzen hasi nintzen: lasterketetara joaten, jendea ezagutzen...".

Donostiollerrek askotariko jarduerak antolatzen zituen garai hartan, eta Plazaolak dio horietara joaten zela ahal zuenean.

Talde harekin eman zituen aurreneko lasterketetako lehen pausoak, eta aurrena egin zuen proba Lilatoia izan zen, 2011n. Egun, Itsasmendi kirol elkartearen dabil: "Lasterketetan parte hartzeko jendea behar zutela esan zidaten Itsasmendikoek, eta beraiekin Espainiako Txapelketan parte hartzea nahi al nuen galdetu zidaten. Baietz esan nien, eta orain talde horretan aritzen naiz". Kirol horren barruan modalitate asko badaude ere, azkoitiarra abiadura modalitatean lehiatzen da normalean: "Ni kalean egiten diren lasterketetan ibiltzen naiz. Korrikako probak antolatzen dituztenean, batzuetan errepidea itxi egin behar izaten dutenez, aprobetxatu egiten dute patinaketa lehiaketak antolatzeko". Abiadura probetan lurrak "baldintza batzuk" bete behar dituela azaldu du Plazaolak, eta horrek garrantzi handia duela modalitate horretan lehiatzen diren





kirolarientzat: "Guretzat errepideak zenbat eta zuzengune gehiago izan, askoz hobee, abiadura hartu eta mantendu egiten baituzu".

2018. eta 2019. urteak izan ziren Plazaolak proba gehienetan parte hartu zuen sasoia. Euskal Herrian, besteak beste, Donostiako Klasikoan, Behobia-Donostian eta Zubiri Pamplona Puente Skate Race txapelketan lehiatu izan da, eta 2019an Espainiako Txapelketan zein WRG Barcelona munduko txapelketan parte hartu zuen: "Munduko txapelketan parte hartzea erabaki nuen une horretan fisikoki ondo nengoelako eta gertu tokatu zelako". Azken bi urteetan, ordea, lasterketarik ez da izan pandemia dela eta, nahiz eta aurten dagoeneko bi txapelketa irabazi dituen: Euskadiko Zirkuituko Txapelketa eta Tuterako II. Maratoi Erdia.

Espainiako Txapelketan "presiopean" sentitu zela azalarazi du Plazaolak, izatez hamar maratoitan parte hartu behar zuelako, nahiz eta horietara guztietara joateko abagunerik ez zuen izan. "Hamar maratoi horietatik bost onenak ziren puntuagarriak, eta ni zortzitarara aurkeztu nintzen; presiopean sentitzen nintzen, lasterketa batera joaten ez bazara, zure aurretik doanak puntu gehiago lor baititzake lasterketaren batean". Lasterketa horiek guztiak, gainera, Euskal Herriko kanpo jokatu behar izan zituen; besteak beste, Huescan, Bartzelonan, Madrilan eta Albaceten.

Azkoitiarrak normalean abiadura probetan parte hartzen badu ere, askotariko modalitateak daudela azaldu du, esaterako, zirkuituko probak. Halakoak atletismoko proben antzekoak izaten direla adierazi du, adibidez 100, 500, eta 5.000 metrokoak. Horrez gain, patinaketa zeharkaldiak

ere egin ohi dira hainbat txokotan, nahiz eta berak horietako batean soilik parte hartu duen orain arte.

Zaletasuna bultzatu beharra

Plazaolaren arabera, patinatzen teknika lortzeko garrantzitsua da umeek saioak txikitatik jasotzea: "Klaseekin bultzatu behar da patinekiko zaletasuna, eta inguruan txapelketak egotea ere beharrezkoa da. Hemen ez dugu izaten entrenatzeko aukera handirik, eta jende asko Iruñera joaten da entrenatzera eta probetan parte hartzera". Hala eta guztiz, inguruko zenbait herritan patinatzen ikasteko tailer batzuk antolatu dituztela jakin du Plazaolak, Zarautzen eta Legazpin (Gipuzkoa), esaterako.

Azkoitiarrak entrenamenduetan abiadura lantzen du bereziki, eta aitortu du koordinazioa zein oreka hobeto landu beharko lituzkeela: "Zailena teknika menperatzea da; horretarako

Ane Plazaola

- **Adina:** 38 urte.
- **Ikasketak:** Ingeniaritza informatikoa.
- **Lanbidea:** Informatika munduan egiten dut lan, analista programatzaile moduan.
- **Patinatzailea ez banintz...** Bizikletan ibiltzea eta surf egitea ere asko gustatzen zaizkit.
- **Entrenamendua amaitzean gogoko dut...** Lagunekin zerbait hartzea.



denbora behar da". Garai batean Astigarragara (Gipuzkoa) joaten zen teknika hobetzera, baina utzi egin behar izan zion zeregin horri, "logistika kontuengatik". Hala dio: "Astigarragako kiroldegian astearteetan eta ostegunetan elkartzen dira teknika lantzeko. Urte batean edo bitan joan izan nintzen entrenatzera, baina gero utzi egin nion. Izan ere, Azkoitian bizi naiz eta Arrasaten [Gipuzkoa] egiten dut lan, eta handik Astigarragaraino joatea oso nekeza zen niretzat. 22:00 aldera iristen nintzen etxera, eta ez zidan kontsatsen horrela ibiltzeak".

Proba nekezenaz galdetuta, azkoitiarrak gogoratu du Calafateko (Tarragona, Herrialde Katalanak) zirkuituan egin zen hamabi orduko proba batean parte hartu zuela, eta hura amaitzea ez zela ahuntzaren gauerdiko eztula

izan: "Apur bat inkontzientea izan nintzen Calafateko proban parte hartu nuenean. Taldeka edo bakarka egin zitekeen proba, eta nik bakarka egin nuen. Sekulako beroa egin zuen, eta ordubeteko atsedendia bakarrik egin nuen. Nire lehen eta azken aldia izan zen han".

Plazaolak dio patinaketa lasterketetan ibiltzen diren beste bizpahiru pertsona ere ezagutzen dituela Azkoitian, eta horiekin topo egin izan duela parte hartu duen proba batzuetan. Patinaketa herrian zein inguruan presentzia handiegirik ez duen kirola izanagatik, garrantzitsutzat jo du entrenatzeko leku gehiago izatea, eta, bereziki, kirol hori haurrekin eta gaztetxoekin lantzea, kasualitatea baino kausalitatea izan dadin inguruan patinaketarako zaletasuna. ■■■

GARAJE

AXIRI

MARKA GUZTIETAKO AUTOAK
KONPONTZEN DITUGU

Asteheneretik ostiralera:
08:30-12:30 / 14:30-19:00
Larunbatean itxita

Classic

San Joan, Axiri 13
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel. 943-85 04 11 - 674 09 19 62

OSKAR BERNAL GOMEZ
tailleraxiri@gmail.com





WAV WAV
TXOJUFRIZOWAV
HARRIJUFSAWAVRRI YNQ
SAMAWARRA JUF HAUJUFXE
YNQ, BELAWARRAK JUFEYNQRE
WAVZAPOWAVRE JUF
HOWAVBEA YNQ WAV
DU



Zuriko eta Xapi



Hona hemen gure bi laguntxo: ZURIKO zakarra eta XAPI katua. Bete itzazu sudokuen hutsuneak, bi izerak esatzen dituzten hizkiez (seikoan Z, U, R, I, K eta O, eta laukoan X, A, P eta I). Gogoratu hizkiek behin agertu behar duela leerra, zutabe eta area bakoitzeko.

YNQ WAV
WAV HAYNQU WAV
JUFDAWAV ARTAYNQ
-BUWAVRLJYNQA




Zeeer?! Bide batez, ezaba itzazu WAV, YNQ eta JUF guztiak eta zakur-katuok zen esaten ari diren ulertuko duzu.

Handitik txikiira

Ordene itzazu inurri eta madalena hauek, handienetik txikienera, letik 7rako zenbakiak erabiliz (handienari 1 eman eta txikienerari 7).



BadUNK





Itzala

Erreka horriarik harri igaro nahi duen turista honek zein du itzal zuzena?







Hamahiru



Beno, beno, beno, hari da abere pila! Eta gidariak ez al dute arriskurik ikusten?! Nolanahi dela ere, aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamahiru dira guztira.

DOMINOAN

Garaian garaikoa. Domino hau ekainean azoketan ikusiko ditugun sei galez egina dago. Honakoak dira: ziazerba edo espinaka, angurria, marrubia, gerezia, brokolia eta piperra. Marraztu hutsunetan falta diren irudiak, domino zati honek zentzua izan dezan.

| | |
|---|---|
|  | |
|  | |
|  | |
|  | |
|  | |
|  | |
|  | |
|  | |
| | |
|  |  |

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

"Kideon arteko elkarlana da bandaren gauzarik politena"

CARLOS MUÑOZ AZKOITIKO UDAL MUSIKA BANDAKO ZUZENDARIA ETA IRAKASLEA

Haurra zenetik du musikarekiko grina Carlos Muñozek. Bizkargi Musika Eskolan aurreneko ikasketak egin ondoren, pixkanaka musika ibilbidea osatzen aritu da azkoitiarra. Gaur-gaurkoz, Azkoitiko Udal Musika Bandaren zuzendari postua musika irakasle lanarekin uztartzen du gazteak.

Testua: **Saioa Murua**. Argazkiak: **Saioa Murua eta Maxixatzen**.

Carlos Muñozek (Azkoitia, 1985) haurra zenetik du musikarekin lotura estua. Horren handia da gazteak musikarekin duen lotura, ezen ikasketak ere musikari eskaini dizkion. Gainera, azken urteotan Azkoitiko Udal Musika

Bandaren zuzendaria ere bada.

Noiz eta nolatan barneratu zinen musikaren munduan?

Ez daukat ideiarik ere; ez dakit zergatik sartu zitzaidan buruan musika ikasi nahi nuela. Etxean ez dago beste musikaririk, baina oso txikia nintzenela hasi nintzen gurasoei musika eskolan izena eman nahi nuela esaten. Oker ez banago, 4-5 urterekin matrikulatu ninduten han.

Zer da zuretzat musika?

Zorionez, esan dezakedan lehen gauza da nire ogibidea dela. Egunero, ordu asko pasatzen ditut musikaren inguruan, bai irakasten, baita ikasten ere.

Denbora librean, zein musika mota entzutea duzu gustuko?

Momentu eta egoera desberdinak daude musika mota bat ala bestea entzuterakoan. Adibidez, larunbat gauerdian musika jakin bat nahiago dut, eta astearte goizean, esaterako, beste bat. Hala ere, etxean nagoenean, musika barroko asko entzuten ari naiz azkenaldian.

Eta lanean, zer-nolako musika eskaintzea gustatzen zaizu?

Kasu horretan, nahiko malgua naizela esango nuke. Izan ere, lanean nagoenean, jendea eroso ikustea da gehien gustatzen zaidana. Umeekin aritzen naizenean, esaterako, oso gustuko dut modan dauden kantu berriak lantzea.

Zuk musika tresnarik jotzen al duzu?

Bai, zeharkako txirula.

Nola iritsi zinen zuzendari izatera? Ezaugarri zehatzik izan behar al du postu horretan dagoenak?

Zuzendaritza taldetik etorri zitzaidan banda zuzentzen hasteko eskaintza. Zuzendariak izan behar dituen ezaugarrietan garrantzitsuena, berriz, entzuten jakitea da: alde batetik, musika entzun behar da, abestia aztertzeko, eta ondoren, entseguan, aldaketak proposatu ahal izateko;





Carlos Muñoz, banda zuzentzen. MAXIXATZEN

bestetik, jendearen iritzia entzutea ere nahitaezkoa dela iruditzen zait, izan bandako musikariena zein herritarrena.

Banda zuzentzeaz gain, zein dira zure zereginak?

Lehenengo, bandarako errepertorioa entzuten dut; izan ere, abesti asko daude idatzita, eta funtsezkoa da horiek ezagutzea. Bestetik, programak antolatu behar izaten ditut: kontzertua non izango den pentsatu, eta zer motatako emanaldia nahi dugun kontutan hartuta, partiturak bilatzen hasten naiz. Askotan, partituretan egokitzapenak egin behar izaten dira, eta falta diren paperak berridatzi. Behin hori guztia antolatuta dagoenean, partitura guztiak prestatzen ditut, eta kide bakoitzari berea banatzen diot. Aldi berean, gidoia ikasten joaten naiz, entseguetako lana probetxugarria izan dadin.

Duela urte batzuk pentsatzen al zenuen gaur zauden egoeran egongo zinela?

Musika irakasle edo flautista izango nintzela bai, txikitatik nuen nahia hori zelako. Baina ez nukeen sekula pentsatuko bandako zuzendari izatera iritsiko nintzela.

Musikari moduan, zein da daukazun desiorik handiena?

Kontzertuetan elkarrekin bizi duguna da gehien betetzen nauena; hau da, musikariak zein entzuleak gustura ikusteak asetzen nau. Hori ez nuke nahi sekula galtzerik, bizitzan betirako gordetzen duzun sentipena baita.

Nolakoa izan da zure musika ibilbidea?

Euskal Herriko goi mailako kontserbatorioan egin nituen musika ikasketak. Euskal Herriko zein atzerriko irakasle ugari izan nituen eskolan, eta emanaldi pila bat eskaintzeko aukera izan nuen. Profesionalki, ibilbide luzeana flautista moduan dut egina; Euskal Herriko hainbat musika bandatan aritu izan naiz musika tresna hori jotzen. Bandekin ez ezik, kontzertu ugari eskaini ditut formatu desberdinetako hainbat talderekin.

Ba al duzu musikari erreferenterik?

Musikari asko ditut eredutzat. Oso zaila da bakarra aukeratzea, baina Gustavo Dudamel zuzendaria, esaterako, asko gustatzen zait.

Zer muga eta oztupo aurkitu dituzu zauden lekura iristeko?

Musikariok sarri izaten ditugu oztopoak. Batetik, musika ezin dela bizibide izan uste dute batzuek. Horiek kontzertua afari baten truke eskaintzeko deitzen digute, eta pentsatzen dute horrekin



"JENDEAREN IRITZIA ENTZUTEA NAHITAEZKOA DA, IZAN BANDA KOENA ZEIN HERRITARRENA"

"MUSIKARIOK OZTOPO BATZUK IZATEN DITUGU; MUSIKA EZIN DELA BIZIBIDE IZAN USTE DUTE BATZUEK"

"EZAUGARRI DESBERDINETAKO HERRITARRAK BILTZEN DITUELA DA BANDA K DUEN GAUZARIK POLITENA"

guztia ordainduta dagoela; lotsagarria da. Bestetik, musika ikasketak egiten hasterako ere izaten dira oztopoak: ikasketetara sartzeko probak nahiko zailak izaten dira, eta oso plaza gutxi jartzen dituzte eskuragarri.

Zer da zuretzat herriko musika banda?

Musika bandak duen gauzarik esanguratsuena, eta aldi berean politena, zera da: adin eta ezaugarri desberdinetako herritarrak biltzen dituela. Berdin dio zer adin duzun, nondik zatozen, zer hizkuntzatan moldatzen zaren hobeto: entsegetan, kontzertuetan zein parrandan, beti egongo da elkarlana. Hain zuzen, gauza bera gertatzen da kontzertuetara etortzen den publikoarekin ere: helburua beti da ahalik eta publiko zabalenarengana iristea.

Zer bilakaera izan du taldeak?

Arlo guztietan bezala, gizartearekin batera eraldatzen joan da banda ere; hau da, erreperitorio desberdina topatu dugu, kontzertuen formatu berriak eskaini eta entzule berriak aurkitu ditugu. Horren gainera, ordea, elkarlana eta laguntasuna dira beti mantentzen diren bi gauzak.

Zer da bandak eman dizun gauzarik onena? Eta txarrena?

Dudarik gabe, kideon arteko elkarlana da gauzarik politena; izan ere, emaitza onarekin taldean egiten den lana bakarlana baino askoz ere atseginagoa izaten da. Gauza txar bakarra, berriz, konpromiso handia eskatzen duela da. Jaiegunetan, Gabonetan eta festetan planak egitea oso zaila izaten da.

Azkoitiko musika banda zerk desberdintzen du besteengandik?

Esango nuke bandako kideon artean dagoen harreman ona dela gehien bereizten gaituena.

Nola ikusten duzu gaur egun taldea?

Oso osasuntsu ikusten dut. Bizkargi musika eskolatik ateratzen diren ikasleei esker, banda berritzen eta handitzen ari gara urtero.

Etorkizunean, zuzendari postuan jarraitzen ikusten al duzu zeure burua?

Momentuz eroso eta gustura sentitzen naiz zuzendari lanetan, baina ezinezkoa da bihar zer pasatuko den jakitea. Egia esan, ez dut gehiegi pentsatzen etorkizunean.

Une aipagarri edo bereziren bat?

Plazaberrin egiten dugun emanaldia oso berezia izaten da guretzat. Jende ugari biltzen da, eta lan handia egiten dugu kontzertu horretarako prestatzen. ■■■

Gurpil gaineako bidaiariak

Autokarabanak edota bidaiatzeko hornitutako furgonetak ugaritu egin dira azken urteetan. Oporrak pasatzeko modu horrek "autonomia" eskaintzen diela dio Goretti Alberdik. Gaizka Seguiolak eta Irati Auzmendik, berriz, beren gogoari helduz alokairu enpresak sortu dituzte.

Testua: **Andoni Elduaie eta Nerea Uranga.** Argazkiak: **Utzitakoak.**

Oporretara joateko ohiturak eta moduak aldatu egin ditu azken urteotan jendeak. Esaterako, ugaritu egin da autokarabanarekin edota bertan lo egiteko eta jateko hornitutako furgonetan bidaiatzen duten pertsonen kopurua. Horrek ekarri du ibilgailu horien alokairurako eskaintzak zabaltzea, baita zerbitzuak ugaritzea ere. Dena den, bidaiatzeko modu horren erabiltzaileek eta enpresariak diotenez, inguruotan zerbitzuak urriak dira oraindik orain, beste herrialde batzuekin alderatuta.

Orain dela hamabost urte egin zuten autokarabanarekin lehen bidaia Goretti Alberdik (Azkoitia, 1973) eta familiak: "Aste Santuko oporraldian Mediterraneo aldean ibili ginen". Gaztetatik ibili dira Alberdi eta haren bikotekidea batetik bestera, leku desberdinak ezagutuz. Lehen furgoneta eduki aurretik, auto txikiagoetan moldatu izan ziren bidaiatzeko: "Beti izan dugu toki berriak ezagutzeko grina, eta batetik bestera ibili izan gara oporretan. Aurreneko aldirian, Ford Scort batean atzeko eserlekuak jaituta egin genuen lo Andorran. Ondoren, Opel Astra atze luze bat erosi genuen, eta harekin ibiltzen ginen. Gero, furgoneta bat erosi genuen, eta geuk hornitu genuen haren barrualdea. Bigarren alaba jaio zenean ekarri genuen autokarabana. Orain, berriro furgonetara pasatu gara, baina hau Camperra da, ekipatutakoa".

Autokarabanak edota furgonetan bidaiatzeak "izugarriko autonomia" eta "inprobisatzeko aukera" ematen dituela uste du





Goiko irudian, Gaizka Segurola, eta beheko argazkian, Irati Auzmendi.

Alberdik. "Egunero toki desberdinean egin dezakezu lo, eta leku bat gustukoa baldin baduzu, han gelditu zaitezke. Imajina ezin daitezkeen tokietan lo egiteko eta disfrutatzeko aukera izan dugu guk. Bidaiatzeko filosofia bera daukaten lagun asko ere egin ditugu". Hala ere, azken urteetan, jende ugari heldu dio gurgipen gaineko bidaiatzeko aukerari, eta horrek "xarma" pixka bat kendu dio, Alberdiren ustez: "Egun izugarri ugari dira autokarabana eta furgonetak, eta xarma galdu du kontuak. Lehen toki askotan bakarrik edota beste autokarabana batekin egoten ginen, eta hori galtzen ari da".

Euskal Herrian autokarabanentzako eta furgonetentzako zerbitzuak eta azpiegiturak ugartzen ari dira, baina Frantzian aspalditik dituztela gogorarazi du: "Beste herrialde batzuen aldean oso txikia da hemengo eskaintza". Alberdik dioenez, Frantzian aurkitu dituzte zerbitzurik onenak ere: "Hango itsas ertzean eta barrualdeko herri txikietan autokarabanentzat egokitutako gune asko daude. Gainera, gune horietako batzuetara furgonetak joaten dira goizetan, ogia eta gosaltzeko gutuziak saltzera. Zerbitzu aldetik, berriz, ia denetan dituzte argindarra, ur garbia betetzeko eta ur zikina nahiz komunak husteko tokiak".

Onetik gutxi duten lekuak ere ezagutu dituzte Alberdik eta familiak: "Santanderren ezin da autokarabana aparkatu. Portugalen, berriz, araudia aldatu dute, eta orain ezin da edozein tokitan lo egin. Orain arte, Portugal oso leku erakargarria izan da guretzat; bost bat alditan izan gara han autokarabanarekin. Hemendik aurrera kanpinetara joatera derrigortzen bagaituzte, ordea, ez dut uste joango garenik". Portugalaz gainera, herrialde eder askotan barrena bidaiatzeko aukera izan du Alberdik gurgipen gaineko *etxean*: "Korsika, adibidez, asko gustatu zitzaigun. Autokarabanarekin lehen abuztua han igaro genuen, eta berezia izan zen. Suitza, Italia, Kroazia, Frantzia... Zoragarri ibili gara toki horietan".

Herrian eta inguruan autokarabanentzako azpiegituren eta zerbitzuen falta sumatzen du Alberdik. "Oso gutxi daude, eta dauden aparkaleku askok ez dute zerbitzurik eskaintzen. Herrian bertan ibilgailu horiek gordetzeko toki bat ipiniko balute, kalean okupatzen ditugun aparkaleku asko libre geldituko lirateke".

Alokatzetik alokatzera

Autokarabanen alokairurako enpresa bana dute Gaizka Segurolak (Azkoitia, 1983) eta Irati Auzmendi (Urretxu, 1989) Azkoitiko bizilagunak. Biak hasiberriak dira horretan; izan ere, duela gutxira arte beraiek ibili ohi ziren beste enpresa batzuei alokatutako autokarabanetan bidaiatzen.

2019. urtean erosi zuen Segurolak lehen ibilgailua, alokatzeko. "Kuadrillakoak eta lagunak rallyak ikustera joaten ginen, askotan autokarabana alokatuta. Horrelakoetan beti komentatzen genuen gure artean, inguruan ez genuela halako enpresarik". Baserrian bizi da azkoitiarra, eta etxeko lanak egunero egin behar izaten dituenaz, ihesalditxoak egiteko asmoz erosi zuen lehen autokarabana. "Etxetik irteteko autokarabana bat edukitzea ederra izango zela eta, erosteko aukera sortu zenean ekarri egin genuen. Bagenekien udan probetxu gehiegi ez geniola aterako; izan ere, udan uretako motoetako irakasle lanetan aritzen naiz. Horregatik, udan autokarabana alokairuan

jartzea erabaki genuen". Eskari ugari jaso zituenez, enpresa sortu eta "gaia serioago" hartzea erabaki zuen, beste bi ibilgailu erosita. Konfinamenduak, baina, bete-betean harrapatu zuen: "Lehen urtea ona izan zen, baina txarra ere ezagutu genuen etxeratu gintuztenean. 2020an, bi autokarabana berri iritsi zitzaizkigun, baina biak zuzenean garajeetan sartu behar izan genituen". Egun, alokatzeko lau autokarabana ditu azkoitiarrak.

Auzmendik, berriz, 2020an jarri zuen martxan autokarabanak alokatzeko enpresa, anaiarekin batera. "Konfinamendu garaian erabaki genuen buruan genuen ideiarri forma ematea", azaldu du. Urte hartako maiatzean eman zituzten lehen pausoak, eta uztailean erosi zuten lehen ibilgailua. "Lehen uda hartan bi autokarabana eduki genituen, bigarren udan lau, eta aurten, bosgarrena ekarriko dugu".

Autokarabanak alokatzen dituzten enpresek joera handia dute erabilitako ibilgailuak urte gutxira saltzeko. Hala azaldu du Auzmendik: "Gure asmoa da autokarabana berriak edukitzea, eta horregatik, ibilgailuak saldu egiten ditugu bi urte egindakoan".

Auzmendirentzat "sekulako boom-a" izan zen pandemia garaia, baina Seguirolarentzat kontua ez da horrenbeste aldatu orduetik. "Jendeak dio pandemia ostean autokarabanak alokatzeko joera nabarmen hazi zela; ni, ordea, ez nator bat horiekin. Komunikabideek saldu zuten autokarabanekin bidaiatzea libreagoa zela, baina guk uztailean eta abuztuan alokatuta izan genituen pandemiaren aurretik ere. Lehen alokatzen ez zuen jendea hasi da orain autokarabanak alokatzen; hori izan da, beharbada, nabaritu dudana aldaketetako bat". Auzmendik dioenez, bestalde, pandemia urteetan ez zen egon bidaiatzeko beste modurik, eta jende askok jo zuen haiengana. "Autokarabana zen bidaiatzerakoan askatasun gehien ematen zuena". Urretxuarrak ere nabaritu du jende berriak hartu duela autokarabana alokatzeko joera. "Pandemia iritsi arte, askok ez zuen autokaraban bidaiatzea planteatu ere egin, baina, behin probatuta, esperientzia gustukoa izan da ia guztientzat".

Herritar askok hautatu dute alokairuaren bidea, baina beste askok autokarabana erosteko erabakia hartu dute; bi lagunak bat datoz horretan. "Sekulako autokarabana pila dago Azkoitian; herriko aparkalekuetan nabaritu daiteke hori. Sekulako dirutza balio dute, eta erosi aurretik, autokarabana alokatzea eta probatzea gomendatzen dugu guk", dio Auzmendik. Seguirolak, berriz, dio azken urteetan jendea erostera animatu dela. "Etxean denbora asko igaro dugun honetan, bidaiatzeko beste aukera bat ikusi du jendeak. Lehen herrian oso lagun gutxik zuten autokarabana, eta orain, aldiz, pila batek". Hain zuzen ere, autokarabana oldea ikusita, horiei neurriak jartzen hasi dira zenbait herrialdetan. "Lehen, edozein lekutan egin zitekeen lo autokarabanarekin; orain, ordea, mugatuagoa da aukera. Halere, herrialde ia guztiak daude oso ondo prestatuta".

Seguirola eta Auzmendi, biak, bidaiazaleak izan dira, baina orain besteek bidaia dezaten lan egin behar izaten dute. "Gu ere bidaiatzekoak gara, eta ahal dugun guztietan joaten gara batera edo bestera. Guretzat, ordea, lana da orain autokarabanak alokatzea, eta horregatik, zailagoa egiten zaigu opor denboraldian inora joatea", nabarmendu du Auzmendik. ■■■



Goretti Alberdi eta familia, 2007. urtean.

**"IMAJINA EZIN
DAITEZKEEN TOKIETAN
LO EGITEKO ETA
DISFRUTATZEKO
AUKERA IZAN DUGU"**

**"SEKULAKO
AUTOKARABANA PILA
DAGO HERRIAN,
APARKALEKUEAN
ANTZEMATEN DA HORI"**



Errepidean, argi eta adi

Herriguneko hainbat zati adi ibili beharrekoak dira mota guztietako ibilgailuentzat zein oinezkoentzat. Puntuotatik egunero pasatzen denak ondo ezagutuko ditu arriskuak, baina ohitura txarrak ere izan ohi dira halako lekuetan. Herritarrek tentuz ibili beharreko hainbat gune identifikatu ditu Maxixatzenek. Argazkiak eta testuak: **Anartz Izagirre.**



Bide eta jende asko

Aizkibel kalean gora eta behera ibiltzea, batzuetan, ez da samurra. Floreaga Ikastetxea eta Xabier Munibe Ikastola han daude, eta ibilgailuen zein oinezkoen joan-etorria etengabekoa izaten da zenbait unetan. Goranzko bidean eskuinetara, gainera, Floreagazar jauregiaren aurreko aparkalekua dago, eta espaloia gurutzatu behar da hara sartzeko. Inguruko bizilagunek ere bide horretan dute garajeetarako sarbidea, eta inguru oso aldapatsua ere bada. Autoeskolako klaseetan, nor ez da kikildu aldapa horretan?

Keinukarien garrantzia

Julio Urkixo hiribidetik igaro besterik ez dago ibilgailu asko pasatzen diren lekua dela ohartzeko, eta kontuz ibili behar izaten da. Hasteko, herrigunerako norabidean, Lidl supermerkatu zaharrera heldu baino lehen, Ugarte ibilbidea eta Intsausti kalea daude eskuinetara, eta Juin kalea, ezkerretara. Aurrerago, berriz, Trenbidearen Zumardia, Izpiritu Deuna eta Xabier Munibe kaleak. Norabide bikoitzeko lekuak direnez, ezinbestekoa da ibilgailuen lehentasunak argi izatea, baita keinukariak egoki erabiltzea ere.



Zubi deserosoa batzuetan

Txalonerreka eta Martirietako bidea lotzen dituen zubian beharrezkoa da ibilgailuen asmoak zeintzuk diren jakitea. Jausorotik datorrenak hiru aukera ditu: aurrera jarraitu Malkorbide aldeko aparkalekura, Martirietako bidea hartu edo Txalonerrekara joan. Martirietatik datorrenak ere, Txalonerrekara, Malkorbidera eta Jausorora har dezake. Halako leku txikian ibilgailuek hainbeste aukera izanda, hobe eskuak bolantean eta oinak balaztan edukitzea, oinezkoentzako zebra bidea ere bai baitago zubiaren alde batetik bestera.



Estua eta baxua

Auto zabalak eta altuak dituztenentzat oztopo bilaka daiteke Santa Klara komentuari sarreraren ezker aldean gelditzen den errepide zatia. "Norabide guztiak" dioen seinalea dago bidearen ezker aldean; beraz, Santa Klarako errepidean behera doanak ez du eskuinera hartu beste irtenbiderik herrira sartu nahi badu. Komentuari eta etxebizitza blokearen arteko errepidea, estua izateaz gain, altuera baxukoa ere bada, eta galiboa jarri behar izan zuten, ibilgailuek etxebizitza eraikinaren zati bat jo ez zezaten. Horrez gain, zebra bidea ere badago espaloiarenekin eta komentuariaren artean. Bide horretatik doanak, beraz, adi eta mantso ibili beharko luke ezbeharrak saihesteko.



Ikusgarritasun gutxiko lekua

Santa Klarako komentura iritsi baino metro batzuk lehenago ere korapilatsua gerta daiteke errepide zatia. Alde batetik, Trino Uria kaletik gora doazen ibilgailuak eta Auzmendi Bidetik gora doazanak elkartzen dira, eta Auzmendi Bidetik doazentzat ikusgarritasuna ez da oso egokia. Kale horretatik Trino Uria kalera goitik behera doazenek ere tentuz ibili behar izaten dute Santa Klara kaletik gora doazen ibilgailuekin.



Osasun zentroaren atzeko bidea

Jausoron ibilgailuen joan-etorria handia izaten da sarritan: alde batetik, herritar asko bizi direlako han, eta, bestetik, ambulatorioa ere bertan dagoelako. Hain zuzen ere, ambulatorioaren atzean jende askok aparkatzen du autoa, esaterako, osasun zentroko langileek, pazienteek zein bizilagunek. Horrez gain, garajerako sarrera ere hantxe dago. Maniobrak egiten abila izatea hobe.

Abiadura kontrolatu behar

Kale Nagusia, Martin Deunaren kalea eta Altzibar etorbidea batzen diren gunean tentuz ibili behar da. Kale Nagusitik datorrenak gelditu beharra du, Martin Deunaren kalera eta Altzibar etorbidera joan behar duten ibilgailuek baitute lehenetasuna. Martin Deunaren kalea estua izateaz gain, zebrabide bat ere badago bi espaloien artean. Eta Martin Deunaren kalean autobus geralekua dagoenez, autoak ez ezik autobusak ere etengabe igarotzen dira Altzibar etorbidetik barrena. Abiadura eta kontrola zaindu behar dira. ■■■



Ekozidak



MAITE LOPEZ

Denok gara gutxi-asko ekozidak. Ez dago sekulako sarraskia eragin beharrik ingurumena kaltetzeko edo ekosistema bateko izaki bizidunen biziraupena arriskuan jartzeko. Gizakion berezko uste hedatua da gainontzeko espezieak baino eskubide gehiagoren merezidun izatea edo osterantzeko animalia zein landare-espezieei zigorgabe kalte egiteko ahalmena edukitzea.

Lehenik eta behin baztertu beharko genukeen iritzia da gizakia animalia ez dela. Gizon-emakumeok barneratua dugu oso inguruko bizidunekiko gainjartzearen jokabide hantustetsua. Gizakia animalia-espezie bat da; ekosistemako beste animalia bat. Inork ez dio aurre egiten gizaki-izurriari; aitzitik, ugaltzera bultzatzen gaituzte, hain justu ere, errealismo kapitalistaren garaiotan ez delako komeni diru-iturriaren txorota ixtea.

IUCNren (Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Erakundea) zerrenda gorriaren arabera, 40.000 mila espezieetik gora galzorian daude, hots, gaurdaino aztertu diren espezieen %28a desargertzeko arriskuan dago. Chantal Maillard filosofo eta poetarekin bat nator zerrenda horretan gehitzeko espezierik geratzen ez denean iritsiko garela, azkenean, lur promestura.

Giza-espeziea osatzen dugun animalioi etxebizitzetan bizitzeko joera dugu, eta horiek eraikitzeko, ezinbestean, luraren zati bat suntsitzen dugu, eta berekin, bertako animalia eta landareak. Hain diogu galdua itsasoaren hurbiltasunari ere errespetua, ezen hori ekiditeko gizakiak berak lege bat asmatu behar izan baituen. Gizona omen gizonarentzat otso; bai eta naturarentzat ere, gehituko nuke nik. Otso asko egongo dira, ordea, izadiari gizakiak baino begirune gehiago dionik. Bizirik irauteko bere burua armarik gabe defendatu behar, gizakiak ez bezala, hark ez baititu mugak ulertzen, hark ez baitaki gizakiak asmatutako lur banaketak giza-animaliari jabetza osoki bermatu behar dionik.

Lantokira, supermerkatua edo eskolara joateko, adibidez, gizakiok automobila erabiltzeko ohitura dugu, batzuetan behartuta, nagikeriagatik besteetan; baita oporretara hegazkinez edo itsasontziz bidaiatzeko ere. Hegaldia nahiz itsas-bidaia merke-zurrean erosten dugu sarri, merkea garesti ateratzen dela entzungor eginez. Ageriko poluzioa eragiteaz gain, plataforma-puska horiek sortzeko lantegien kokalekuak eta aireportu zein bestelako eremu ikaragarriak ere izadiaren suntsiduraren zuzeneko ondorio dira.

Gizakiaren joera bereganatzaiela ikusirik, eta ekonomialariek sistema kontsumista gutxitzeko edo aldatzeko behar-beharrezkoa den ekinaldirako duten borondate gabezia kontuan izanik, gurutzaontziren baten kamarotean ikusteko pelikula bat eta edozein charter hegalditan irakurtzeko moduko liburu bat gomendatuko ditut hurrenez hurren: Sean Penn zuzendari eta gidoigilearen *Hacia rutas salvajes*, bata, eta Henry David Thorearen *Walden*, bestea, Danele Sarriugartek euskaratua, "besterik ez bada auzokoak esnatzeko". ■■■■

**GIZONA OMEN
GIZONARENTZAT OTSO;
BAI ETA
NATURARENTZAT ERE,
GEHITUKO NUKE NIK**

A top-down view of a person's hands typing on a laptop keyboard. The laptop is silver with a black keyboard. To the left of the laptop, there are sheets of color calibration charts with various shades of green and red. Overlaid on the right side of the keyboard is a large, colorful graphic that reads 'DISEINU LANAK' in a bold, sans-serif font. The letters are filled with a gradient of colors: blue, green, yellow, orange, red, and pink. To the right of the text is a stylized icon of a person wearing a hard hat and holding a pencil, with a gear-like shape below it.

DISEINU LANAK

- PAPEREKO APLIKAZIOAK:
FLYERRAK, DIPTIKOAK,
KARTELAK, ETAB.
- KATALOGO PROFESIONALAK/
KORPORATIBOAK.
- AURKEZPEN KORPORATIBOAK.
- ESPAZIOEN SEINALITIKA.
- MERCHANDISING-A ETA PACKAGING-A.
- INFOGRAFIAK.

GUKA  ZERBITZUAK

Tel.: 943-81 38 41 • www.gukazerbitzuak.eus

2084: Spyware



LANDER ALBIZURI

Ayusoren aurka eginiko espioitza saiakerak eta Catalangate deitu denak oihartzun handia izan du. Horren aurrean, gaur egungo espioitza noraino iristen den zalantza sortzen da; zertarako eta zeinen probetxutarako erabiltzen da, eta batez ere, eragiten al digu herritarroi?

Hamabi mila milioi eurotan estimatzen da gailu elektronikotako espioitza industria. Hainbat ikerketen arabera, Rwanda eta Saudi Arabiako oposizioko edota El Salvador eta Mexikoko droga kartelak aintzertzeko helburua zuten hainbat kazetariren hilketetan erabilia izan da Pegasus. Hala ere, herrialde demokratikoek ere badutela frogatu da, Espainiak barne.

Pegasus erabilia hainbat espioitza kasu WhatsApp bidez egin ostean, Facebookek GSO (Pegasus programaren konpainia) salatzen zuen. GSOK, espioitza esku onetan onuragarria dela eta nazioarteko erregulazioa behar dela argudiatu zuen. Snowden kasua delakoan, frogatu zen CIAk eta beste hainbat inteligentzia zerbitzuek herritarren intimitatea legez kanpo hausten zutela. Nazioarteko espioitza legerik ez egotean, alboko herrialde aliatuko herritarrek espiatu eta informazioa hango estatuarekin partekatuta, *Do ut Des*.

Estatu guztiek dute espioitza teknologia, eta herritar batek

besteari egin ahal dizkion gehiegikeriak saihesteko erabiltzen dira. Hala ere, estatua bera boteredun gorputza izanik, eta interes propioak dituela kontuan hartuta, legez mugatzen da bere jardura inork bidegabekeriarik jasan ez dezan. Horrenbestez, segurtasunaren izenean botere politikoak neurrigabekeriarik egin ez dezan, nazioarteko lege mugatzaileak egon behar dira.

Pedro Sanchezen gaineko espioitza egoteak, logikoki, baimen judizial gabeko espioitzak egon direla esan nahi du. Zuzenbide estatu demokratikoaren osotasuna eskubide zibilen berme leialean oinarritzen da, eta Defentsa Ministerioaren agindupean dagoen CNIk oposizio politikoaren aurka horiek hautsi baditu, zuzenbide estatua bera jartzen du balantzan. Kontuari estalkia kentzea, hortaz, zuzenbide estatuaren defendatzaile ororen eginbeharra litzateke.

Imaginatuz inongo baimen judizialik gabe, segurtasunaren izenean, uniformedun polizia edozein autori multak jartzen hasiko balira, militarrek edozein etxetara sartu eta gauzak konfiskatzen hasiko balira!

Faltsua dirudi. Orain oroitu (ikusi 2013/10/28ko albisteak) AEBek hilabete bakar batean Espainian 60 milioi dei zelatatu zituela. ■

Bertsoa paperean

Gaia: Ikasturte bukaera
Izena: Eneritz Artetxe
Doinua: *Erreguetan ari nintzela*

Bertsolaritza ezagutu ta

ikasteko borondatez zenbat gazteri esan diegun "gugana anima zaitetz!" doinu berriez, gai desberdinez neurritz ta errima katez ederki asko aritu dira beste ikasturte batez.

Maiatzarekin batera heldu

denez kurtso bukaera Erriarraitzen ere bagoaz deskantsu pixkat hartzera zatoz berriro bertso eskolara irailletikan aurrera eta udako hilabetetan plazan elkartuko gera!

MILAR LARRAMENDI



ZORIONAK IRAURGI,
URREA GARA!



AUPA GORRIKEX!
A ZER DENBORALDIA!

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.eus



FK

KOPISTEGIA

Inazio Iriarte, 1 • 20720 **AZKOITIA** • (Gipuzkoa)

Tel.: 943-85 20 52 • Faxe: 943-85 20 91

j.artetxe@fkkopistegia.es

ERITIA
KONKURENTIA



KURUTZIA



DAGOENeko 4 BEBARRUA SALGAI

www.izarjai.com

Amets egiteko ordua da

- Igerilekua, lorategia eta txokoa duen urbanizazio pribatua.
- 2 edo 3 logelako etxebizitzak eta solariuma duten atikoak.
- Terraza zabalak etxebizitza guztietan, bista irekisk.
- Etxebizitzatik igogailuan sarbide zuzena duten garajeak.



SUSTATU ETA MERKATURATU



AZKOITIKO GRUPO EIBAR-EN
BULEGOA
Julio Urquijo Etorbidea 30

618 614 541

comercial@grupoeibar.com
www.grupoeibar.com